

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eraturako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako idazkari lanpostuari batera eusteko

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2024ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez sortu zen lanpostua (2024ko maiatzaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 96. zk.), eta Udaleko eta Kuadrillako lanpostuen zerrendak aldatu ziren maiatzaren 27an, sortu berria zen lanpostura egokitzeko.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu dira kontuan.

Elkarteak erabakitakoa betez, eta elkarteko lehendakari naizen aldetik, hau ebatzi dut:

Lehenengoa. Deialdi hau argitara dadila agintzea, Arabako Foru Aldundiari Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eraturako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetze aldera estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa izendatzeko proposamena egiteko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduetako baten bidez eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta elkartearen batzarrak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Elkarteko batzarrari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. kategoria.

Eskala: estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1/A2.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 22.527,54 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4 (C2, C2). Derrigortasun data: 2024ko maiatzaren 27a.

Destinoa: Zalduondoko Udala (ehuneko 40) eta Arabako Lautadako Kuadrilla (ehuneko 60).

Zalduondo, 2024ko maiatzaren 28a

Elkartearen lehendakaria

LURDES LEKUONA LABURU

ERANSKINA (Eskaerak Zalduondoko udaletxean aurkeztuko dira)

Nik, jaunak/andreak, (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

Adierazten dut

Jakin dudala Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eransten ditut:

* NANaren fotokopia.

* Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

* Lanpostua zereginen pilaketagatik eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20.....koaren(a)

Sinadura:.....